

KONFERENTZIAKO TALDE ETNIKOAK (ETA IV)

KRONOLOGIA

Afganistango pariak

HAZAREN DISKRIMINAZIOA. Etnia, hizkuntza eta erlijioa direla-eta bazterturik egon ohi diren mongoliarren ondorengook beren independentziari eutsi nahi diote Hazarajat eskualdean

Txikienetan txiki

Eragin politiko txikia duten beste hainbat talde etniko badira Afganistanen. Hona horietako batzuen berri.

BALUTX. Hego mendebaldean bizi dira balutxak, eta abeltzain ibiltariak dira.

NURISTANI. Ekialdeko mendietako biztanleak. Musulman bihurtzera behartu zituzten XIX. mendean.

KIZILBAX. Xiita hiritarrak; askotan diskriminatu dituzte erlijioa dela eta.



LAURA RAUCH / AP

GIZARTEAN BAZTERTUTA. Hazarajateko mendialde elkorretik hirietara emigraturiko hazarak gutxien ordainduriko lanbideetan aritzen ohi dira. Irudian, kale garbitzaile bat Kabuln.

Edu Lartzunguren | DONOSTIA

Mongoliar itxura dela eta, erraz asko bereizten dira hazarak Afganistango beste etnietako herritarrengandik. Sudur zapalak eta begi luzangak dituzten gizon-emaumeok historikoki diskriminatuak izan dira beren etniagatik, hizkuntzagatik eta fedeagatik.

Mongoliako soldaduen eta bertako herritarren arteko nahasketaren ondorio dira hazarak. Afganistango beste etnietako kideekin ezkontzen dira, baina, batez ere, emazte joateko. Paxtu batek, esaterako, ez dio inoiz bere alaba hazara bati emango, eta ezkontidetzat hazara bat hartuz gero, gutxitan da lehen emaztea.

Hazara gehienak xiitak dira, bakan batzuk sunitak badira ere. Erlijio gutxiengo izanik, *takia* —xiitak jazarpena saihesteko bere fedea ezkutatzeko duen eskubidea— erabili izan dute.



Musulman suniten eta beste etnien etsaigoak Afganistan erdialdeko mendi elkorretara —Hazarajat— baztertu zituen hazarak. Bizirik irauteko nekazaritzan aritu izan dira, eta hezkuntza urria izan da haien artean.

Mendietan independentzia

Eragin txikia izan ohi du Afganistango Estatuak Hazarajaten. XIX. mendera arte, independente iraute lortu zuen hazaren lurraldeak, harik eta 1893an Abd al

Rahman erregeak, Erresuma Batuen laguntzarekin, Hazarajat okupatu eta Afganistango Estatuaren menpean jarri zuen arte.

Erregeak hiru probintzian —Kabul, Bamian eta Kandahar— banatu zuen Hazarajat, hazaren batasun eta independentzia zentzua hausteko eta komunitate bera zatitzeko asmoz.

Gero ere probintzia banaketa gehiago jasan behar izan zuen Hazarajatek, Kabulgo gobernuaren eskutik. Estatu nazionalismoa bultzatzeko hizkuntza eta kultura paxtuak bultzatu zituzten, eta hazaren kultura eta historia baztertu.

Hazarek paria egoera jasan zuten politikan, gizartean, ekonomian eta kulturean. Jendaurrean irainduak —*aratoi jale hazarak*—, gizarteko maila apalena eta gutxien ordainduriko lanpostuak betetzen zituzten hirietara joandako hazarek.

Afganistanen inoiz izan den agintari ez paxtu bakarrak —Batxa i Sakaok— itxaropen izpia ireki zien hazare 1929an agintera heldu zenean. Hazarajaten eraturiko gobernuak eskera orri bat aurkeztu zion erregeari: autonomia osoa izatea Hazarajaten, zergak eta soldaduska bertan behera uztea eta Afganistango funtzionarioak erretiratzera.

Egun nazioarteak Kabuln buru jarri nahi duen Mohamed Zahir Sha erregearen agintaldian —1933tik aurrera— Estatu indartu zen, eta hazaren autonomia murriztu.

Nazionalismoaren bizkortzea

Hazaren lehenengo erakunde nazionalistak 60ko eta 70eko hamarkadetan sortu ziren: Gaztedi Mongoliarra eta Hazara Belau-naldi Berriaren Erakundea, besteak beste.

Sobietarren okupazioa bitartean haien askapena lagundu be-

harrean, Afganistanen bere itzala sendotzeko erabili zituen Iranek hazara «neba-arrebak». Erresistentzia mugimendua bateratzeko *Hizbe Wahdat* —Batasunaren Alderdia— sortu zen 1988an, Iranen itzalpean.

Alderdiaren ideologia nazionalistak talde bakar gisa hartzen zituen hazarak, sekta banaketa baztertuta. Iranekiko loturak moztuz joan zen alderdia, Abdul Ali Mazariren gidaritzapean.

Talibanek Mazarri eta Batasunaren Alderdiko beste buru batzuk erail zituzten 1995eko martxoaren 12an. Mazariren ondorengo Mohamed Khalilik hazaren batasun eta askatasun osoa ezartzeko borondatea berretsi zuen.

Hazarajat hartu zuten talibanek 1998an. Azken asteotako ofentsiban eskualdea eta Bamian hiria —Buda erraldoien kokagunea— berreskuratzea lortu zuen Khaliliren taldeak.

Afganistango talde etniko-politikoaren arteko gerrak ondorio paradoxikoa ekarri die hazare: alde batetik, arriskuan jarri du herritarren bizia, baina, bestetik, beste taldeei ezinbesteko bihurtu zaizkie hazarak borrokarako aliatu gisa.


Bonnen eta Kabuln mami-tzen ari den gobernu banaketa berrian, halere, litekeena da hazarak boteretik at gelditzea eta beste gobernuen lorturiko independentzia galtzea, parion diskriminazioa betiketuta.

Durangonobedadeak


2001




Gotzon Garate



Joxemari Urteaga



Jon Arretxe



Joseba Sarrionandia

